

E.E.- 2026-00190

## ALKATETZA DEKRETUA

**OINARRIA:** 2026ko jorrailaren 29an, udal sarrera erregistroan E202601652 inskripzino zenbakiagaz udaleko sarreren erregistro nagusian Bizkaiko Elikagaien Bankuak (IFK: G48755433; helbidea: Cervantes Etorbidea, 49, 7. Modulua 48970 Basauri) bere jarduera humanitarioa eta soziala gauzatzeko diru laguntza eskatu du.

**OINARRIA:** Egoera ahulean dauden familiek dituzten arazo ekonomiko eta sozial handiak direla eta honelako jarduerak oso garrantzitsuak direla adierazten da.

**OINARRIA:** Diru-laguntzen 38/2003 Lege orokorraren 22.2.c) artikuluan, 887/2006 Errege Dekretuak onetsitako Diru-laguntzen Araudi Orokorraren 67. artikuluan xedatutakoa kontuan harturik.

Honen bidez, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, **HAU EBATZI DOT:**

**LEHENENGOA.-** Bizkaiko Elikagaien Bankua elkarteari (IFK: G48755433; helbidea: Cervantes Etorbidea, 49, 7. Modulua 48970 Basauri) 500,00 euroko diru-laguntzea emongo jako, 230-48000 aurrekontu-partideari zordunduta.

**BIGARRENA.-** Diru-laguntza hau 2027ko martxoaren 1a baino lehen justifikauko da, 38/2003 Legearen 30. Artikuluan ezarritakoaren arabera agiri honeek aurkeztuta:

- Egindako gastua egiaztetako fakturak.
- Egindako jardueren memoria.

**HIRUGARRENA.-** Dekretu honek oinarri arautzailearen izaerea eukiko dau, eta hemen ezarritakoaren arabera kudeatu, justifikau eta arautuko da: Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Araudi Orokorra.

**LAUGARRENA.-** Ebazpen honen barri emongo da Udalbatzeak egingo dauen hurrengo bilkuran.

*Ebazpen honek **administrazio-bidea amaitzen du**. Horren aurka, aukerako izaeraz, **berraztertze-errekurtsoa** aurkez daiteke ebazpena eman duen **Alkatearen aurrean**, **hilabeteko epean**, ebazpenaren **jakinarazpena** egin eta **hurrengo egunetik** aurrera zenbatuta, **Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren Ieko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz**.*

*Bestela, **administrazioarekiko auzi-errekurtsoa** aurkez daiteke **Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian**, **bi hilabeteko epean**, **jakinarazpena** egin eta **hurrengo egunetik** aurrera zenbatuta, **Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz**.*

*Hori guztia, interesdunak egoki iritzitako beste edozein errekurso aurkezteko duen eskubideari kalterik egin gabe.*